

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Udalaren 3. zerga ordenantza, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena, aldatzeari

Amaitu delarik epea erreklamazioak aurkezteko Udalbatzak 2020ko irailaren 24ko bilkuran hartu eta 2020ko urriaren 5eko ALHAOn, 113. zenbakian, argitaratu zen erabakiaren aurka, zeinak behin-behineko onarpena eman baitzion trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen 3 zenbakiko zerga ordenantzaren aldaketari (espediente zenbakia: 2020/10/S062), eta inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, bat etorritz martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duenak, 17.3 artikuluan ezarritakoarekin, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, eta argitaratu egiten da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta aipatutako 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duenak, 17.4 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, zerga ordenantza horren testu osoa argitaratuz, zeina indarrean jarriko baita ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hona testua, hitzez hitz:

“UDALAREN 3. ZERGA ORDENANTZA, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udalak ordenantza honen arabera eskatzen du trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, Arabako lurralde historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauan eta zerga honi buruzko foru arauan ezarritakoari jarraituz.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan ezarriko da.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua

Zerga egitateak dira:

1. Bide publikoetatik ibil daitezkeen trakzio mekanikoko ibilgailuen titularrak izatea, ibilgailuak edozein mota eta kategoriatakoak direla ere, zirkulazio baimenean zehazten den helbidea Amurriokoa bada.

2. Ibilgailua zirkulaziorako gai da baldin eta dagozkion erregistro publikoetan matrikulatuta bada, eta baja eman gabe. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena duten ibilgailuak eta turismo matrikula dutenak ere zirkulatzeko egokitzen joko dira.

3. Ez zaie zerga hau ezarriko honako hauei:

a) Antzinako modeloa izanik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuei, nahiz eta, salbuespen gisa, horrelako autoen erakustaldi, txapelketa edo lasterketa mugatuetan ibiltzeko baimena izan.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoi eta erdi atoei, baldin eta haien zama erabilgarria 750 kilogramo baino gehiagokoa ez bada.

III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

4. artikulua

1. Hauek zergatik salbuetsita daude:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren eta toki erakundeen ibilgailuak, defentsara edo herritarren babesera atxikitakoak.

b) Beste herrialde batzuetako ordezkari diplomatikoen, kontsul bulegoetako kideen, agente diplomatikoen eta kontsul funtzionarioen ibilgailuak, baldin eta herrialdeko herritarrak badira eta ibilgailua kanpoaldean identifikatuta badago, eta elkarrekiko salbuespena badago, hedapen eta maila berekoa.

Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, eta bertako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.

c) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun laguntzako ibilgailuak, eta zaurituak edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen direnak.

e) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorren II. eranskinaren A idatz zatiak aipatzen dituen mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, baldin eta ezintasuna duten pertsonen izenean matrikulatuta badaude.

Gainera, salbuetsita daude ezinduen izenean matrikulatutako 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, haiek bakarrik erabiltzeko badira. Salbuespen hau egoerak irauten duen artean aplikatuko da, bai ezinduek gidatutako ibilgailuen kasuan, bai ezinduak eramateko ibilgailuen kasuan.

Ibilgailuen zergatik salbuetsita egongo dira, halaber, ibilgailuen titularrak, baldin eta, guraso ahala, tutoretza, edo kuradoretza dela medio, beren kargura badute ehuneko 65ko ezintasuna edo handiagoa duen pertsonaren bat.

Aurreko hiru paragrafoetan aurreikusitako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko subjektu pasibo edo ezinduei ibilgailu bat baino gehiagotik aldi berean.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako hauexek hartuko dira ezgaitasuna duten pertsonatzat:

e.1) Ehuneko 33 - 65 bitarteko minusbaliotasun gradua onartuta dutela, mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonak. Honako hauek dute mugitzeko gaitasuna murriztuta: abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun gradua onartu, adierazi eta kalifikatzeko prozedurarenak, III. eranskineko baremoko A, B eta C letretan azaltzen diren egoeretako batean daudenak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago dituztenak.

e.2) Ehuneko 65eko minusbaliotasuna edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko e.1) eta e.2) letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskin gisa agertzen den baremoan A letrako mugitu ezintasunaren egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta ibilgailua gurpil aukiekin erabiltzeko egokituta badago.

f) Hiriko garraio publikoko zerbitzurako edo hari atxikitako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, baldin eta bederatzi leku baino gehiago badauzkate, gidariarena barne.

g) Nekazaritzako Ikuskatze Txartela duten traktore, atoi, erdi-atoi eta makinak.

2. Artikulu honetako 1. apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenez gozatu ahal izateko, interesdunek eskatu egin beharko dituzte eta, horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak,

matrikula eta hobariaren arrazoia adierazi beharko dituzte. Salbuespena eskaera egin den ekitaldian sartuko da indarrean. Udal administrazioak salbuespena onartu ostean, horren ziurtagiria emango da.

Lehenengo apartatuko e) letraren bigarren paragrafoan aurreikusitako salbuespenari dagozkionez, interesdunak Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak emandako agiria aurkeztu beharko du, ezintasuna eta, hala badagokio, mugikortasun murriztuko gabezia-egoera egiaztatzen duena, eta zinpeko aitortpena, adieraziz salbuespena egin nahi den ibilgailua ezinduek erabiltzeko soilik dela eta ez daukala salbuespenik beste ibilgailuren batengatik.

3. (Ezabatu egin da).

4. (Ezabatu egin da).

5. Zerga kuotaren ehuneko 25eko hobaria izango dute 5 leku edo gehiagoko ibilgailuek, baldin eta jabea familia ugari kide bada, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera. Familia ugari bakoitzeko ibilgailu bat baino ez da izango hobaridun.

6. Hobari hori ez da emango, sekula, ofizioz, eta interesdunak eskaera egin beharko du zergaren sortzapen urtean, familia ugariaren tituluaren fotokopia konpultsatua erantsita.

7. Kamioi, furgoi, furgoneta, ibilgailu misto egokigarri, autobus eta autokar motetako ibilgailu automobilek hobaria izango dute zergaren kuotan motorren ezaugarrien, erabiltzen duten erregaiaren eta konbustioak ingurumenean duen eraginaren arabera, baldintza eta betekizun hauetakoren bat betetzen badute:

a) Ibilgailu hibrido izatea (motor elektrikoa-gasolina, motor elektrikoa-diesela edo motor elektrikoa-gasa), eta fabrika bertan homologatua izatea, kutsagarriak diren isuriak gutxitzeko euren mota eta modelora egokitutako katalizagailu eta guzti.

b) Erregai malguko ibilgailua izatea (flexi-fuel FFV ibilgailuak); hau da, E85 (ehuneko 85 bioetanol eta ehuneko 15 gasolina) izeneko nahastearen bidez ibiltzeko prestatuta dauden ibilgailuak, fabrika bertan homologatuak.

a) eta b) kasuetako ibilgailuei zerga kuotaren ehuneko 50eko hobaria emango zaie, lehenengo matrikulatu zirenetik lau urte naturaletan.

c) Gasolina edo gasoliozko turismo ibilgailu berriak izatea, zeinen marka eta modelo ibilgailu eraginkorren artean, A energia eraginkortasuna sailkapenarekin, egongo baita, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren arabera, abuztuaren 2ko 837/2002 Errege Dekretuak, Espainiako lurraldean salgai jartzen diren edo finantza alokairuan eskaintzen diren turismo berrien erregai kontsumoaren eta CO₂ isurketen gaineko informazioa arautzen duenak, xedatutako moduan. Ibilgailu horiei zerga kuotaren ehuneko 25eko hobaria emango zaie, lehenengo matrikulatu zirenetik bi urte naturaletan.

d) Motor elektrikoko ibilgailuak eta/edo ezer isurtzen ez dutenak izatea. Ibilgailu horiei zerga kuotaren ehuneko 50eko hobaria emango zaie.

8. Aurreko idatz zatian jasotako hobariak jasotzeko, interesdunek eskatu egin beharko dituzte, eta eskatzen duten ekitaldian sartuko dira indarrean; ez dira barruan sartuko eskaera egin baino lehenagoko kuotak.

9. Udalak ibilgailuaren ezaugarri teknikoaren egiaztatzea eta zirkulazio baimena eskatu ahal izango du, salbuespen eta hobari horiek emateko.

10. Bateriaezinak dira elkarren artean 5. eta 7. apartatuetan xedatutako hobariak eta portzentaje altuena duena aplikatuko da.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

5. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. apartatua aipatzen dituen entitateak, baldin eta ibilgailua haien izenean agertzen bada zirkulazio baimenean, bai eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak ere, baldin eta zerga ordenantza honen 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

V. KUOTA

6. artikulua

1. Tarifen taula honen arabera eskatuko da zerga:

Potentzia eta ibilgailu mota	Kuota eurotan
A) TURISMOAK	
8 zaldi fiskal baino gutxiago	22,49
8 eta 11,99 zaldi fiskal bitartean	60,74
12 eta 15,99 zaldi fiskal bitartean	128,22
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartean	159,70
20 zaldi fiskaletik aurrera	208,37
B) AUTOBUSAK	
21 eserleku baino gutxiago	148,47
21 eta 50 eserleku bitartean	211,44
50 eserleku baino gehiago	264,30
C) KAMIOIAK	
Karga erabilgarria: < 1000 kg	75,35
Karga erabilgarria: 1.000 eta 2.999 kg bitartean	148,47
Zama erabilgarria: 2999 eta 9999 kg bitartean	211,44
9999 kilogramo baino gehiagoko zama erabilgarria dutenak	264,30
D) TRAKTOREAK	
16 zaldi fiskal baino gutxiago	31,48
16 zaldi eta 25 zaldi fiskal bitartean	49,49
25 zaldi fiskal baino gehiago	148,47
E) TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEK TIRATUTAKO ATOI ETA ERDIATOIAK	
Zama erabilgarria: 1.000 eta 750 kilogramo bitartean karga erabilgarrikoak	31,48
Karga erabilgarria: 1.000 eta 2.999 kg bitartean	49,49
2999 kilogramo baino gehiagoko zama erabilgarria dutenak	148,47
F) BESTE IBILGAILU BATZUK	
Ziklomotorrak:	7,88
Motozikletak: 125 cm ³ arte	7,88
Motozikletak: > 125 eta 250 cm ³ arte	13,48
Motozikletak: > 250 eta 500 cm ³ arte	27,00
Motozikletak: > 500 eta 1000 cm ³ arte	53,99
Motozikletak: > 1000 cm ³	107,99

2. Tarifak ezarri ahal izateko, indarreko araudiak arautegirik garatuta ez duenez, ondoko irizpide hauei jarraituko zaie:

a) Kuartzikloek motozikletek ordaintzen duten adinako zerga ordainduko dute, zenbat zentimetro kubiko dituzten.

- b) Betiere, Tarifen D) letran azaltzen den “traktore” izendapen orokorraren barruan sartzen dira “traktokamioiak” eta “obra eta zerbitzuetarako traktoreak”.
- c) Zaldi fiskaletan adierazten den potentzia indarrean dagoen araudiaren arabera finkatuko da.
- d) Karabanek atoiak ordaintzen duten adinako zerga ordainduko dute, zama erabilgarriko kilogramoak zenbat diren.
- e) Autokarabanek turismoek adinako zerga ordainduko dute, zenbat zaldi fiskal dituzten.
- f) Egokitu daitezkeen ibilgailu mistoek kamioiek ordaintzen duten adinako zerga ordainduko dute, zama erabilgarriko kilogramoak zenbat diren.

VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

7. artikulua

1. Zergaldia urte naturalarekin bat dator, salbu eta ibilgailua lehenengoz eskuratu bada edo baja eman bazaio. Kasu horietan zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean bertan hasiko da edo Trafiko Buruzagitzan baja ematen den egunean amaitu.
2. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.
3. Ibilgailua lehen aldiz eskuratzean, zergaren kuota eskuratze egunetik abenduaren 31ra bitarteko aldiari proportzionalki dagokiona izango da, edo ibilgailuari baja ematen zaion egunera arteko aldiari dagokiona, kasua hori bada.
4. Ibilgailuari baja ematen bazaio, zergaren kuota kalkulatzeko, urtarrilaren 1etik trafiko buruzagitzan ibilgailuari baja ematen zaion egunera bitarteko aldiari dagokion proportzioa hartuko da kontuan.

VII. KUDEAKETA

8. artikulua

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den egoitzari dagokion udalaren egitekoak dira zerga hau kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, eta Zergaren kudeaketan ematen diren egintzak berrikustea.

9. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

10. artikulua

Udal administrazioak edo finantza erakunde laguntzaileak emandako ordainagiria izango da zerga ordaindu izanaren egiaztagiria.

11. artikulua

Ekitaldi bakoitzeko bigarren hiru hilekoan ordainduko da zerga; ez, ordea, hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetan, horrelakoetan bertan xedatutakoari jarraituko zaio eta.

12 artikulua

1. Trafiko Buruzagitzan matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasun egiaztagiria edo ibilgailuaren behin betiko baja eskatzen dutenek, aldezturik, zerga ordaindu dutela egiaztatuko beharko dute.
2. Betebehar hori bera izango dute ibilgailuen titularrek trafiko buruzagitzari haien eraldaketa jakinarazten badiote eta eraldaketa horrek haren sailkapena aldatzen badu zerga honen ondorioetarako, bai eta transferentzia eta ibilgailuaren zirkulazio baimenean jasotzen den helbide aldaketa egiten bada ere.
3. Trafiko buruzagitzek ez dituzte ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak izapidetuko, aldezturik zerga ordaindu izana egiaztatzen ez bada.

Matrikulazio berria bada, edo, zergen ondorioetarako, ibilgailuaren sailkapena aldatuko duen bestelako aldaketaren bat, matrikulazioaren edo aldaketaren ondoren, hogeita hamar egun balioduneko epean, interesdunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte udal administrazioan, zergaren matrikulan sartzeko:

- a) Zirkulazioko baimena.
- b) Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.
- c) NANA edo IFK.

VIII. XEDAPEN IRAGANKORRA

Trakzio mekaniko ibilgailuen gaineko zerga ezartzen hasten den egunean zirkulazioaren gaineko udal zergan hobariren bat dutenek zerga honetan ere dituzten hobari berberak izango dituzte, hobariak indargabe gelditu arte, eta hobarien indarraldia finkaturik ez balego, indargabe deklaratu da 1992ko abenduaren 31tik aurrera.

IX. XEDAPEN INDARGABETZAILEA

(Ezabatu egin da).

X. AZKEN XEDAPENA

Udalaren 3. zerga ordenantza, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena, 2021eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du haren aldaketa edo indargabetzea onartu arte."

Amurrio, 2020ko azaroaren 18a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA